

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektua aurrera eramateko zenbait baliabide ezberdin behar ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak eta finantza-baliabideak:

Lehenik, baliabide fisikoei dagokienez, lanerako lokal bat izan behar dugu, bilera areto eta bulegoekin. Han, beharrezko ekipamendu teknologikoa (ordenagailuak, inprimatzaile, arbela digitala, telefonoa...) edukiko dugu gure aplikazioa kontrolatzeko. Hortaz aparte, eta aurretik esan dudan bezala oso beharrezkoak ditugu ordenagailuak, gure aplikazioa ondo kontrolatu ahal izateko eta bezeroekin harremanetan egoteko; routerrak, Interneteko konexioa edukitzeko; propaganda egiteko inprimagailuak, gure zerbitzua argitara emateko. Gainera, hizketaldi eta ikastaro txikiak eskaintzean, arkatzak, boligrafoak, papera... eta bestelako materialak behar ditugu.

Baliabide intelektualei dagokienez, ikasle bezala dugun esperientzia erabiliko dugu ahalmen nagusitzat, honen bidez, aholkularitza eta laguntza eskainiko diegu gure bezeroei. Hala ere, gu laurok ez gara eskulan bakarra izango, gure ondoan gizarte langileak, hezitzaileak eta informatikan aditua den pertsona bat izango ditugu, haien trebetasunak erabiliz proiektua aurrera eramateko.

Gure finantza baliabideak, alde batetik, gure aurrezkiak izango dira; baina, bestetik, administrazio publikoari eskatuko diegu diru-laguntzak ematea, eta beharrezkoa baldin bada mailegu bat eskatuko diegu bankuari.